

## SORGIÑAK

**SORGIN-KUME BAT ZELAN SORGIN BENE-  
NETAKOA EGITEN DAN.**—Lau juez edo  
epailleen aurrean, 1.610 urtean, sorgin batek  
kontau eban argi ta garbi pertsona bat zelan  
sorgin egiten zan. Emen bere berbak ipiñiko  
dautzuedaz.

\* \* \*

**SORGIN-AMA ETA SORGIN-KUMEA.**—  
«Sorgin izan gura dauan sorgin-kume batek,  
Sorgin-ama batengana joan bear dau, eta  
onek lapikotxo batean daukan unkontuz, es-  
kuak, bularrak, burua eta oiñak bustiko deu-  
tsoz eta biak egaz Akelarrera joango dira,  
arin eta pozik.

\* \* \*

**AKELARREKO DEABRUA.** — Akelarren  
beste sorgiñak batzarrean egongo dira, Aker  
Baltza —Deabrua— erdian dagoelarik.

Deabrua, aker baltzen itxuran, aulki ba-  
ten jarrita egoten da, buruan adar txikiz  
egindako koroi bat dauala.

Alako adar bi ez dira txikiak, akerraren  
antzeko adar oker luzeak baiño.

Adar luze oneik puntetan argi bana dauke,  
eta argi oneik Akelarre guztia argitzen dabe.

Argi ori illargiarena baiño argiakoa da,  
baiña eguzkiarena baiño illunagoa.

Akerrak begiak borobillak ditu, andiak  
eta suzkoak. Bizarra auntzaren antzekoa.  
Gorputz erdia akerrarena eta beste erdia gi-  
zonaren antzekoa.

\* \* \*

**AKERRAREN AURREAN.** — Sorgin-amak  
bere sorgin kumea akerraren aurrera eroan  
eta esaten deutso: «Jauna, emen dakart zu-  
retzat sorgin-kume au». Akerra orduan ser-  
moi luze bat esaten asten da.

Akerraren abotsa garratza eta astoaren  
arrantzaren antzekoa da, baiña arrokeriz  
betea.

Akerrak beti umore txarreko arpegia era-  
kusten dau.

\* \* \*

**AKERRAREN SERMOIA.** — Akerrak or-  
duan sorgin-kumeari es aten deutso.

Nire ikasle eta jarraitzalle ona izan gura  
badozu, leenengo eta bein betiko Jaungoikoa  
eta. Andra Maria eta Zeruko Santu guztiak  
ukatu, ernegatu egin bear dituzu. Neu ba-  
karrik naz zure Jaun eta Jaungoikoa.

Neu bakarraik adoratu, gurtu bear nauzu.

Au egiten badozu zerua baiño gauza ede-  
rragoak emongo dautzudaz: gorputzeko atse-  
giñak eta gura dituzun gusto guztiak.

\* \* \*

**AKERRA GURTUTZEA.**—Sorgin-kumeak  
akerrak esandako gauza guztiak egiten di-  
tuenean, akerrak eskerreko anka luzatu eta  
sorgin-kumeari gorputzean marka bat egi-  
ten deutso.

Marka au bizitza guztian ezin kendu dai-  
teke.

Gero Akerrak sapo bat, jantsi ederrez  
jantzita, emoten deutso sorgin-kumeari, esa-  
naz: «Au izango da emendik aurrera zure  
aingeru guardakoa».

\* \* \*

**AKELARREKO JAIK.** — Gero txistu eta  
danbolin soñuan sorgin guztiak jai egiten  
dabe su andi baten inguruan bira-biraka.

Gau osoa saltoka eta irrintzika emoten  
dabe sorgin barriaren omenez.

Aker Baltza bien bitartean begira egoten  
da, barreka eta siñu txarrak egiten, lotsaga-  
rrizko eran)).

GOIKOETXEA TAR IÑAKIK

## MARGOLARIAREN EMAYA

*Geure lurra maite dau margolariak  
Lauki bat emon daust: itxaso aserrek  
Bitzaz betetzen dauz Galea'ko atxak  
Maldatik igon gure, baiña jausi.*

*So egin dot luzaro: Ondar zabala  
Neguan agertzen da lagun gabe.  
Batel ondaturiko olak, burdiñak,  
Ezker aldeko ondarra, betetzen dabe.*

\* \* \*

*Zer esan gure daust margolariak?  
Laukiak ete-dau gomutarazo-barri?*

*Gu bere, ludi onetan, urte askotan,  
Guda gogorra izanda, batelen antzez,  
Itxaso ertzara ekarri azur makurrak  
Ildegira begira. Gero arte...*

\* \* \*

*Au da ikuspen ituna? Ez orixe.  
Aitagana juatia. Ezpetxea ausi!  
Zeru ertzeko kayan inguratuta  
Ziñezmendunak bizi alai ta azke.*

UTARSUS